

**2016ko OTSAILAREN 25ean UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO
OSOKO BILKURAREN AKTA 3 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2016ko otsailaren 25ean, iluntzeko zazpietan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Bertaratutako zinegotziak	Maite Garrastazu and. Jesus Arana Gomez jn. Nekane Iribar Iriondo and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Imanol Lasa Zeberio jn. Iban San Martin Hernandez jn. Miren Letamendia Belloso and. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Mikel Goenaga Gubia jn. Naiara Carvajal Larrañaga and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Aitor Korta Etxabe jn. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Ane Arruti Lopetegi and. Gloria Vazquez Herranz and. Pablo Garcia Astrain jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.
Ez da bertaratu	Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatzu ditu Udalbatzarrak. Bilkura honela izan da:

GAI-ZERRENDA

1.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA

a) 2016ko urtarrilaren 28koa

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- UDAL ORGANOEEN KUDEAKETAREN KONTROLA

a) Alkatetzaren dekretuak: 2016ko urtarrilaren 25etik otsailaren 19ra arte

Segidan, Alkatetzak 2016ko urtarrilaren 25etik otsailaren 19ra arte erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

b) Tokiko Gobernu Batzarra: 2016ko urtarrilaren 25etik otsailaren 15ra arte

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko urtarrilaren 25etik otsailaren 15ra arte hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

3.- GAI HAUEN BERRI JAKITEA

Ondoren, eta Udalbatzarrari jakinaren gainean jartzeko, hitzez hitz ondoren jasotako erabakien berri eman dute:

a) 0099 Dekretua. Zuzendaritza Taldea

Alkatetzaren 0099 Dekretua, 2016ko otsailaren 1ekoa:

“Azkeneko urteetan tokiko administrazioak aurrera egin du herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuak hobetzeko eta areagotzeko, administrazio hori delako herritarrengandik hurbilen dagoena.

Halaber, azken aldiko lege erreformek ahaleginak eskatzen dituzte prozedurak modernizatu eta errazteko; ahalik eta modu gardenenean jarduteko; eta, zerbitzuak emateko orduan, kalitateko estandarrak lortzeko.

Zarauzko Udalak, zerbitzu publikoko erakunde gisa, jada konpromiso bat hartu zuen helburu horiek lortzeko: maila instituzionalean modernizazio plan bat diseinatu eta betetzea, herritarrekiko kanal eta konexio modura jardungo duena, horrela lortuko baitu bere helburuak bat etortzea komunitatearekin eta haren etengabeko bilakaerarekin.

Horren emaitza izan zen herritarren arreta zerbitzu integral bat (HAZ) sortzeko proiektua.

Zerbitzu hori ezartzeko EUDELEk bere laguntza-proiektuan gomendatu zuenaren ildotik, prozedurak hiru familia edo arlo handitan bildu ziren, udal administrazioak dituen oinarritzko hiru elementu integratzaileen ikuspegitik hartuta:

1. Herritarrak (pertsonek)
2. Lurraldeak (espazio fisikoa), eta
3. Antolakuntza.

Udalbatza berriaren agintaldiari hasiera emanda, hark berretsi egin zituen aurreko lerroak eta, horrela, Herritarren Arreta Zerbitzua ezartzeko proiektuari beste bultzada bat eman zion abian jarri nahian, berehala-edo izatea espero dena.

Era berean, hausnarketa prozesu bat hasi zen Udalaren erakunde-antolakuntzaren beharrezko erreformari begira, printzipio hauei erantzun ahal izateko: erraztasunari eta eraginkortasunari; zeharkakotasunari; denboraren eta baliabideen arrazionalizazioari; gardentasunari; herritarren partaidetzari eta herritarrek duten herriko politikaren irudia hobetzeari.

Erakundearen beraren zein oro har herritarren onerako izango delakoan, Udalak lehenbiziko urratsak eman ditu egitura politikoa errazteko eta efikazia eta eraginkortasuna lortzen laguntzeko.

Udalerriko hiru elementu integratzaile horiek –esan bezala– oinarri hartuta, erakunde mailan hiru arlo handi osatu dira: Herritarrak, Lurralde eta Antolakuntza. Batetik, ikusi ahal izan dadin bai aurrekontuen egituran bai informazio-batzordeen izenean eta funtzionamenduan, ahal bada ez egiteko bilera asko eta astunak; eta, bestalde, gero eta Udalaren berezko gai gehiagoetara zabal dadin.

Hiru arlo horiek Udalaren gaur egungo antolamendu-egitura osatzen duten departamentu guztiei dagozkie, eta horien jardura osatzen dute. Taldeka honela gelditzen dira:

- HERRITARRAK:
 - Kultura
 - Liburutegia
 - Euskara
 - Euskaltegia
 - Gizarte Zerbitzuak
 - Berdintasuna
 - Gazteria
 - Hezkuntza
 - Mugikortasuna
 - Herritarren Partaidetza eta Agenda 21
 - Udaltzaingoa eta Hiri Segurtasuna
 - Kirola
 - Turismoa, Ekitaldiak eta Jaiak

- LURRALDEA:
 - Hirigintza eta Ingurumena
 - Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuak
 - Zarautz-Lur, SA

- ANTOLAKUNTZA:
 - Idazkaritza
 - Zerbitzu Ekonomikoak
 - Herritarren Arreta Zerbitzua
 - Giza Baliabideak
 - Dokumentazioa
 - Informazio eta Komunikazio Teknologia

Erakunde-antolamendu berri horrek eskatzen du zuzendaritza-organo kolektibo bat. Alderdi politikoak eta alderdi teknikoak osatuko dute, eta funtzio hauek izango ditu: departamentuen eta teknikarien arteko oinarritzko koordinazioa, azterketak, aholkularitza, proposamenak eta lankidetzaren Alkatezarekin. Horrez gain, zeharkako prozesuetan aldaketa bultzatu eta bideratuko du.

Horregatik, zuzendaritza-talde politiko-tekniko bat sortu behar da, honako hauek osatua: alkateak, Gobernu Batzarreko kideak eta hiru arlo horietako bakoitzeko teknikari koordinatzaile batek.

Azkenik, agintaldiko plan bat egingo da. Tresna horren bidez, gobernu-taldeak modu antolatuan eta koherentean planifikatuko du agintaldiko lau urte hauetarako ekintza politikoa, bere helburuak identifikatzearen eta horiek herritarrekin nahiz antolakuntzarekin partekatzearen.

Horiek horrela, eta kontuan hartuta Alkatetzak eskumen hauek dituela: Udal-gobernua eta udal-administrazioa zuzentzea, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera; eta Udalaren zerbitzu administratiboak egituratzea eta antolatzea, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Udal Korporazioen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, laugarren xedapen gehigarrian dioenaren arabera,

ERABAKI DUT

Lehena.- “ZUZENDARITZA TALDEA” izeneko kide anitzeko organo osagarria sortzea, Udaleko antolamendu-egituraren barruan.

Bigarrena.- Honako funtzio hauek izango ditu organoak: Udalaren kudeaketa administratiboaren plangintza, koordinazioa, aholkularitza, kontsulta, proposamena, informazioa eta ebaluazioa; baina ez du erabakitzeko eskumenik izango, ez berezkorik ezta beste udal organoren batek ordezkotzan emanda ere.

Zehazki, funtzio espezifiko hauek finkatzen dira:

- Udal arlo orokorretako gaien ohiko kudeaketa aztertzea.
- Arlo batzuei komunak zaizkien gaiak koordinatzea.
- Alkatetzari aholkua ematea berezko dituen eskumenak erabiltzean, Gobernu Batzarrari dagokion aholkularitza alde batera utzi gabe.
- Lortu nahi diren helburuen izaera eta maila zehazteari buruz Alkatetzari informazioa ematea eta proposamenak egitea; halaber, helburuen lorpen-maila kontrolatzeko lanetan laguntzea.
- Alkatetzak egoki irizitako bestelako gai orokorretan laguntzea.

Hirugarrena.- Honako kide hauek osatuko dute organoa:

- Alkateak,
- Gobernu Batzarreko kideek,
- Idazkari nagusiak eta kontu-hartzaileak
- Hiru arloetako teknikari koordinatzaileak.

Laugarrena.- Honako lanpostu hauen titularrei esleitzea arlo bakoitzeko koordinazio-funtzioak:

- Herritarrak: Euskara arduradunari
- Lurraldeak: Hirigintza eta Ingurumeneko arduradunari
- Antolaketa: Udaleko idazkariari.

Aipatutako hiru arlo horietako bakoitzean koordinazio-talde bat eratuko da.

Bosgarrena.- Organoak berak finkatuko ditu bileren araubidea eta funtzionatzeko beste alderdi batzuk. Ordezko gisa, administrazio-prozedura erkidea arautzen duen legerian aurreikusitako kide anitzeko organoen funtzionamendu-araubidea aplikatuko da.

Seigarrena.- Dekretu hau Udalbatzarrari jakinaraztea, hark egiten duen lehenengo osoko bilkuran; eta, laburtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

b) 0223 Dekretua. Prozeduren eskuliburua

Alkatetzaren 0223 Dekretua, 2016ko otsailaren 18koa:

“Azkeneko urteetan tokiko administrazioa lanean ibili da herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuak hobetzeko eta areagotzeko, administrazio hori delako herritarrengandik hurbilen dagoena.

Aurrerabide hori, batez ere, hiri ekipamenduetan, asistentzian, hezkuntzan, kulturean, osasunean, kirolean, etab. gertatu da, baina ez horrenbeste herritarren zuzeneko arreta gisa izenda ditzakegun zerbitzuetan, eta horien artean sartzen ditugu kudeaketa eta informazio zerbitzuak.

Beste alde batetik, nabarmena da herritarrek ere gero eta eskakizun handiagoak dituztela. Horri gastu publikoa murriztu beharra gehitzen badiogu, ideia berri bat sartzen da Administrazioaren zerbitzuan: kalitatea. Izan ere, pertsonen harrera egin eta haien eskaerak berehala konpontzen badira, erakunde guztiaren kostuak murrizten dira, eta, aldi berean, hobetu egiten da herritarrek Udalarengandik jasotzen duten irudia.

Zerbitzuaren kalitaterako oinarritzakoa da herritarrei arreta egoki bat ematea. Gainera arreta horrek zerbitzuan bertan aurrerabide bat ekartzen du, hobetu egiten delako erabiltzaileekiko komunikazioa eta lagundu egiten duelako haiek planteatzen dituzten gaiak eraginkortasunez konpontzen.

Zarauzko Udalak, zerbitzu publikoko erakunde modura, konpromiso bat hartu du helburu hori lortzeko: herritarrekiko kanal eta konexio modura jardungo duen modernizazio plan bat diseinatu eta betetzea maila instituzionalean, horrela lortuko baitu bere helburuak bat etortzea komunitatearekin eta haren etengabeko bilakaerarekin.

Udal antolaketa berriaren testuinguru orokor horretan, oinarritzakoa zen herritarren arreta zerbitzu bat (HAZ) sortzea, herritarrei arreta zerbitzu integrala emateko, Zarauzko Udalarekiko harremanetan. Horrez gain, tramitazio administratiboko funtzio batzuk ere egingo ditu, udal arloekin hala adostu ondoren, elkarren artean egindako lankidetzaz hitzarmen bidez.

Horiek horrela, gaia hausnartu eta iritzi guztiak aztertu ondoren, Herritarren Arreta Zerbitzu oso bat sortzea proposatu da.

Mota horretako zerbitzu bat (HAZ) martxan jartzeak abantaila hauek eskaintzen ditu, bere funtzioak kudeatzea eta informazioa ematea diren aldetik:

Herritarrentzat:

- Eskaera pertsonalak bideratzea.
- Herritarrei tratu pertsonala eta indibidualizatua ematea.
- Izaera orokorreko eskaerak eta normalizatu daitezkeenak bideratzea.
- Eskaerei arinago eta azkarrago erantzutea.
- Informazio zuzen eta benetakoa ematea, eta informazioa kanalizatzea, herritarrek euren eskaerak zentralizatuta eduki ditzaten.
- Egiten diren kontsultak iragaztea. Horrela, kontsulta espezifikoak bakarrik bidaliko ditu arlo eskudunera, aurretik ordua hartuta.
- Azkenik, nabarmen hobetzea Udalak herritarren aurrean duen irudia.

Udalarentzat:

- Baliabideak arrazionalizatzea, antolakuntza horizontalak sortzen dituen ekonomien ondorioz.
- Herritarren eskakizunak konpontzeko lanean dabilen zerbitzu publikoaren irudia ematea.
- Pertsonetik harreman zuzen eta arduratsua izatea, zerbitzu publiko modura etengabe hobetu ahal izateko.
- Zerbitzuaren berezko “hesi-iragazki” eta “bideratzaile” kontzeptuek abantaila hauek ematen dituzte:
 - * Jendea erakundeko zerbitzu guztietan joan-etorrika ez ibiltzea, eta arlo bakoitzean kudeaketari kontzentrazio eta dedikazio handiagoa eskaintzea.

- * Arloetan/zerbitzuetan jendea modu arrazionalen eta antolatuan hartu ahal izatea, aurretik ordua hartuta.
- * Udaleko kudeaketa eta administrazio zerbitzuetako produktibitatea orokorrean hobetzea.

Udal langileentzat:

- Prozesuak homogeneizatzeko.
- Kudeaketa denboretan irabaztea.
- Protokoloak hasieratik amaierara arte argitzea.
- Barruko lan-sarea indartzea.
- Herritarrentzako zerbitzuaren gogobetetasunean sakontzea.
- Diziplina anitzeko talde bat egituratzea.

2014ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hauek hartu zituen, ZARAUZKO UDALAN HERRITARREN ARRETA ZERBITZU INTEGRALA (HAZ) ezartze aldera:

Lehena.- *Herritarren Arretarako Bulego Integrala ezartzeko prozesuari ekitea eta, horretarako, EUEDEL eta IVAP erakundeek diseinatutako Prestakuntza eta Tutoretza Planean parte hartzea.*

Bigarrena.- *Atxikitze-protokoloa izenpetzea, euskal autonomia erkidegoko udalerrietan herritarren arretarako zerbitzu integralak ezartzeko prozesuak garatzeko prestakuntza- eta laguntza-planean parte hartzeko.*

Hirugarrena.- *Jabier Etxaburu Elu jauna, Herritarren Arretarako zinegotzi arduraduna, izendatzea prozesuaren arduradun politikoa.*

Laugarrena.- *Udaleko ondorengo langile publikoak izendatzea prozesuaren arduradun teknikoak:*

- *Idazkari eta zerbitzu orokorretako burua: Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.*
- *Gizarte Zerbitzuetako teknikaria: Mikel Mendizabal Illarramendi jn.*
- *Zerga-biltzailea: Ana Eizamendi Lazkano and.*
- *Hirigintza eta plangintzako arretaren kudeaketa administraria: Agustin Gabirondo Zumeta jn.*

Bosgarrena.- *Arduradun politikoari eta arduradun teknikoei laguntza eta erraztasunak ematea Prestakuntza eta Tutoretza Planeko online jarduerak eta presentziazko jardueretan parte hartzeko.*

Seigarrena.- *Neurriak hartzea Planak udalean Herritarren Arreta Integralerako Bulegoa jartzeko erabakitzen dituen egitekoak bete eta garatzeko. Neurri horietako batzuk izango dira (ez da zerrenda itxia):*

- *Prozedurak arrazionalizatzeko eta sinplifikatzeko prozesu bat egin eta beteko da, eta, prozesu horren ondorioz, Udalaren Administrazio Prozeduren Eskuliburua egingo da.*
- *Zerbitzu berria jartzeko espazio fisikoa egokituko da.*
- *Zerbitzua emateko langile publikoak eta baliabide materialak izendatuko dira.*
- *Prestakuntza emango zaie zerbitzu berrirako izendatu diren langile publikoei.*

Zazpigarrena.- *Udalak 1.000,00 € ordainduko ditu Prestakuntza eta Laguntza Planean matrikulatzeko, dagokion faktura edo ordaintzeko agiria Udalari igorri ondoren."*

Herritarren Arreta Zerbitzu integral berri bat jartzeko alderdi garrantzitsuenetakoa prozeduren eskuliburu bat osatzea da. Eskuliburu horretan, modu ordenatu eta sistematikoan jasoko da herritarrei zuzenean eragiten dien tramite administratibo bakoitzari buruzko informazioa, informazioaren hartzaileentzat honako edukia modu ulergarrian azalduz:

- Prozedura bakoitzaren esanahia
- Espedienteari hasiera ematea, alde batek hala eskatuta edo ofizioz
- Ekarri beharreko dokumentazioa
- Zein bidetatik egin daitezkeen tramiteak
- Hala badagokio, sortzen diren betebeharrak ekonomikoak

- Tramitazio-epea
- Legezko esparru arautzailea
- Hala badagokio, bete beharreko dokumentu-ereduak.
- Ebazteko eskumena duen organoa
- Tramitazioaren ardura duen departamentua.

Prozeduren Eskuliburua egiteko lantalde bat osatu zen departamentu guztietako teknikari eta administrariekin; prozeduren tramitazioa ezagutzen dute langile horiek, eta aipamen berezi bat merezi dute egindako lanagatik:

Talde iraunkorra:

- Zinegotzi arduraduna: Jabier Etxaburu
- Herritarren Arreta Zerbitzua: Mikel Mendizabal
- Idazkaria: Inés Díaz de Villafranca
- Zerga-bilketa: Ana Eizmendi
- Hirigintza: Agustin Gabirondo
- Kontu-hartzailletza: Itziar Kortabarria
- Kultura: Maite Arruti
- Udaltzaingoa: Amaia Arruti
- Gazteria: Onditz de Leizaola
- Herrilan, Azpiegiturak eta Zerbitzuak: Tere Lopetegi
- Gizarte Zerbitzuak: Amaia Leunda

Noizbehinka:

- Hezkuntza: Arantxa Aldalur
- Parekidetasuna: Edurne Urbietta
- Udaltzaingoa: Ander Esnal
- Turismoa: Esther Facchin
- Gizarte Zerbitzuak: Pablo Etxeberria
- Kirola: Iratxe Aranburu
- Euskara: Maite Etxaniz
- Euskaltegia: Rakel Makazaga
- Kontu-hartzailletza: Lioba Maiza
- Turismoa: Isabel Lopez
- Zarautz-Lur: Iñaki Mendia

Era berean, herritarren arretarako dagoeneko martxan dauden beste zerbitzu batzuen laguntza ordainezina ere izan dugu, batez ere Urnietako Udaleko Herritarren Arretarako Zerbizua lankidetzara; eta zerbitzu horiek oinarri hartuta idatzi eta egokitu ditugu fitxa horiek Zarauzko Udalaren berezitasunetara.

Eskuliburua bukatzearekin, Zarauzko Udalak bete egiten du azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak, 35. artikulua g) atalean ezarritako legezko eskakizuna, hau da, herritarrek administrazio publikoarekiko harremanetan zein eskubide daukan ezartzen du, honela *“Argibideak eta aholkuak lor ditzakete, hain zuzen ere, indarrean dauden xedapenen arabera, proiektuak, jarduna edo eskabideak egiterakoan, zein baldintza juridiko eta tekniko bete behar dituzten jakiteko”*. Eta eskubide hori gauzatu egingo da, Udalak herritarren eskura jarritako edozein komunikazio-bidetatik: aurrez aurre (HAZ), telefono eta internet bidez herritarrei informazio unibokoa, ofiziala, eta ulergarria emanez, eta baita idatziz ere.

Halaber, Eskuliburuarekin bete egiten da lege bereko 42.4 artikuluan aurreikusitako betebeharrak: *“Herri-administrazioek prozedura-zerrendak argitaratu behar dituzte, eta eguneratuta eduki, jendeak jakiteko. Era berean, bertan adierazita egongo dira bai prozeduren gehieneko epeak, bai administrazioaren isiltasunak ekarriko lituzkeen ondorioak”*.

Aurrekoa ikusita, eta Herritarren Arreta Zerbitzuko zinegotzi arduradunak hala proposatuta, honakoa

ERABAKI DUT

Lehena.- Zarauzko Udaleko "PROZEDUREN ESKULIBURUA" izeneko onartzea. Eskuliburu horretan, modu ordenatu eta sistematikoan jasota egongo da herritarrei zuzenean eragiten dien tramite administratibo bakoitzari buruzko informazioa.

Bigarrena.- Izaera tekniko-politiko duen lantaldea izendatzea. Talde horren zeregin nagusia izango da prozedura bakoitza berraztertu eta eguneratuta mantentzea, bai paperean bai eta formatu elektronikoan ere, lege-aldaketak edo antolaketa mailako aldaketak gertatzen direnean, eta, nolana ere, urtean behin.

Taldea honakoek osatuko dute:

- Koordinazio politikoa: Herritarren Arreta Zerbitzuko zinegotzi arduraduna
- Koordinazio tekniko: Herritarren Arreta Zerbitzuko arduraduna
- Koordinazio juridikoa: Udaleko idazkaria
- Kasu bakoitzean eguneratu beharreko prozedura multzoaren arabera, prozedura horien tramitazioan adituak diren teknikari edo administrariak. Horiek taldeko koordinatzaileei jakinarazi beharko diete, ahalik eta lasterren, prozedura bakoitzean zein aldaketa gertatu den, hartara, Eskuliburuko informazioa eguneratuta eduki ahal izateko.

Hirugarrena.- Eskuliburua argitaratu eta ahalik eta zabalkunderik handiena eman."

4.- BETERRI KOSTAKO INDUSTRIALDEA SA SOZIEKATE PUBLIKOAREKIN HIRIGINTZA HITZARMENA (OR IRITA): ARKAMURKA NATURA ELKARTEAREN BERRAZTERTZE-ERREKURTSOA

Udalbatzarrak, 2015eko azaroaren 26an egindako osoko bilkuran, onartu egin zuen Beterrri Kostako Industrialdea SA sozietate publikoaren eta Zarauzko Udalaren artean sinatu beharreko hirigintza-hitzarmena (17-2 areako –OR IRITA– hirigintza antolamendua aldatzea eta ekimen publikoko enpresa-parkea beste toki batean garatzea).

Arkamurka Natura Elkarreak akordio hori berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen.

Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak errekurtsoari buruzko txostena egin zuen. Halaber, Hirigintza informazio-batzordean eztabaidatu zuten.

Espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak (aho batez)

ERABAKI DU

Zarauzko Arkamurka Natura Elkarrearen berraztertze errekurtsoa ezestea.

Akordioaren motibazioa Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuaren txostenean oinarritu da (otsailaren 3ko 0080/2016 txostena). Akordioaren jakinarazpenarekin batera txostenaren kopia bidaliko da.

5.- "EUSKADI LAGUNKOIA" PROIEKTUARI ATXIKITZEA

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak sustatu eta Matia Fundazioak abian jarritako ekimena da «EUSKADI LAGUNKOIA». Bere helburua da adinekoak, eta, orohar, herritarrek Euskal Herriko udalerrak hobetzen parte har dezatela bultzatzea, zahartu ahala nor bere bizimodua izaten jarraitu ahal izateko.

Ekimen honen helburuak dira:

- Adineko pertsonen Euskadiko herri eta hirietako bizitzan ongizate-sortzaile gisa eskaintzeko dutena baliatzea.
- Herritarren parte-hartze prozesuak sortzea eta bultzatzea
- Ekimen lagunkoien sarea sortzea.
- Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko, inguruetan aldaketak sartzen laguntzea

Aurrekoa ikusita, eta 2016ko urtarrilaren 27an egindako bileran Gizarte Politikako Batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak (aho batez)

ERABAKI DU

Zarauzko Udala «EUSKADI LAGUNKOIA» proiektuari atxikitzea. Proiektua Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak sustatu du, eta adinekoak ditu protagonista.

6.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALAK

a) Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren (SEAD) aldarrikapenaren 40. urteurrena dela eta

Jarraian, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren (SEAD) aldarrikapenaren 40. urteurrena dela-eta udal taldeek adostutako adierazpen instituzionala irakurri du **batzarburu** jaunak. Honela dio:

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA SAHARAKO ERREPUBLIKA ARABIAR DEMOKRATIKOAREN (SEAD) ALDARRIKAPENAREN 40. URTEURRENA DELA ETA

Gaur, 2016ko otsailak 27, 40. urteurrena betetzen da Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zela eta Zarauzko Udalak bat egin nahi du gertakari historiko horrekin eta beste urte batez ere garbi erakutsi nahi du Saharar Herriarekin duen konpromiso tinkoa.

Nazio Batuen Erakundeko errefuxiatuen agentziak (ACNUR) salatu zuenaren arabera, Saharar errefuxiatuen kanpamenduetan 2015eko urrian eroritako uholde-uriek 90.000 lagun baino gehiagori eragin diete, hauetako 25.000 pertsonen etxea galdu dute eta jakirik gabe geratu direlarik.

UPV EHUko Hegoa Institutuak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak Euskal Fondoaren sostenguarekin burututako hainbat ikerkuntzak froga berriak ekarri dituzte Marokoko Gobernuak saharar herritarren artean egindako bortxazko desagertzei eta bonbardaketei buruz. Ikerkuntza horiek, gainera, baliagarriak izaten ari dira Saharar Herriaren aurkako genozidioagatik jarritako kereilaren ikerketan, eta egia, justizia eta ordainketa lortzeko eskarrietan.

Hori guztia dela eta, Zarauzko Udalak ondorengoa adierazten du:

1.- Berretsi egiten du SEADen gobernu legitimoa eta Fronte POLISARIOA errekonozitzen dituela, eta behin berriro aldarrikatzen du Saharar Herriak legez duen autodeterminatzeko eskubidea. Era berean, Espainiako Gobernuari eskatzen dio eman diezaiola estatus diplomatikoa Fronte POLISARIOAren Espainiako Ordezkaritzari, bera baita Saharar Herriaren ordezkari bakar eta legitimoa, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) hala aitortua.

2.- Espainiako Gobernuari eta nazioarteko komunitateari eskatzen die bultzatzea beharrezko ekimen politiko guztiak konponbide zuzen eta behin betiko bat erdiesteko, erreferendum baten bidez, Nazio Batuen ebazpenen arabera.

3.- Marokoko agintariei eskatzen die bertan behera utz dezatela giza eskubideen alde diharduten saharar aktibisten aurkako jazargoa, saharar preso politikoak aska ditzatela eta argi dezatela desagertutako 400 saharar baino gehiagoren patua.

4.- Espainiako Estatuari eskatzen dio har dezala bere gain duen erantzukizun historikoa; aktiboki lan egin dezala Europar Batasunaren barruan eta aprobeitza dezala Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluan dagoela, MINURSOri (Misión de las Naciones Unidas para el Referéndum del Sáhara Occidental) luzatu dakion Mendebaldeko Saharan giza eskubideak zaintzeko emana duen agindua.

5.- Berretsi egiten du bere konpromisoa lan egiteko bai Tindufen (Aljeria) babestuta dauden errefuxiatu-kanpamenduetan, bai Marokok legez kontra okupatutako lurraldeetan, Euskal gizarteak Saharar Herriak bere askatasunaren alde daraman borroka zilegiari ematen dion sostenguaren erakusgarri.

6.- Bene-benetan eskertzen du euskal herritarren lankidetzaren interes-gabea eta eskuzabaltasuna, horiei esker aurrera eraman daitezkeelako Saharar Herriarekiko lankidetzaren proiektuak, hala nola den euskal elkartasun-karabana, Oporrak Bakean, e.a.

b) Correscales, prekarietatearen aurkako korrika babesteko

Era berean, Correscales, prekarietatearen aurkako korrika babesteko udal talde guztiak aurkeztu duten adierazpen instituzionala irakurri du **batzarburu** jaunak. Hona hemen testua:

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA CORRESCALES, PREKARIETATEAREN AURKAKO KORRIKA BABESTEKO

1.- Zarauzko Udalak bere babesa adierazten dio Correscales prekarietatearen aurkako adierazpenari.

2.- Zarauzko Udalak, Correscales prekarietatearen aurkako ibilbidea dela-eta antolatutako jardueretan parte duten herritarrei eskerrak eman nahi dizkie.

3.- Zarauzko Udalak konpromisoa hartzen du beren kontratu eta lehiaketa publikoetan lan izaerako klausula sozialak bete daitezzen zaintzeko.

4.- Zarauzko Udalak eskertu egiten ditu gizarte-eragileak, alderdi politikoak eta herritar guztiak Elkartasunezko Funts Kooperatiboaren ekimena babestu izanagatik, ibilbideko kilometroak erosiz.

7.- UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK

a) Irabazi Zarautz taldearen mozioa: Zigor Kodearen 315. artikulua 3. atala indargabetzeko

Ondoren, IRABAZI ZARAUTZ udal taldeak aurkeztutako proposamena irakurri dute. Honela dio:

ZIGOR KODEAREN 315 ARTIKULUAREN 3. ATALA INDARGABETZEKO MOZIOA

ZIOEN AZALPENA

Zigor Kodearen 315 artikulua askatasun sindikalaren eta grebarako eskubidearen kontrako delituak tipifikatzen ditu. Delitu horiek aparteko Titulu batean sartuta daude (XV. Titulua): «Langileen eskubideen aurkako delituak».

Artikulu horretako lehen bi atalek honela diote hitzez hitz: «1. Sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, bai eta sei hilabetetik hamabi arteko isuna ere, askatasun sindikalaren edo grebarako eskubidearen egikaritzea eragozten edo mugatzen dutenei, engainuaren bidez edo inoren beharrezan egoeraz abusatuz». Eta 2. atalak honako hau eranstean du: «2. Aurreko paragrafoan adierazitako jokabideak egiten badira indarra, indarkeria edo larderia erabiliz, beraiei dagozkien zigorrak baino gradu bat gehiagokoak ezarriko dira».

Hala ere, artikulu bereko 3. atalak honela dio: «3. Bigarren paragrafoko zigor berberak ezarriko zaizkie, dela taldeka, dela bakarka, baina beste batzuekin ados egonik, beste pertsona batzuk derrigortzen dituztenei greba bat hasteko edo jarraitzeko».

Zigor Kodearen 315 artikulua idazketan bertan ikus daiteke nola 3. atalean tipifikatutako jokabidea guztiz desberdina den lehen bi ataletan arautzen direnekin. Antzinako arau –desberdin– baten jarraipenaren adibidea da: testu berri batean sartu dute, hori egiteko arrazoirik egon gabe.

Zigor Kode zaharraren 496 artikulutik dator egungo Zigor Kodearen 315.3 artikulua. Hain zuzen trantsizio politikoaren garaian sartu zen, 1976ko uztailaren 15ean, Zigor Kodean egindako berrikuntza baten bidez. Arau horrek helburu jakin bat zuen: «greba zabaltzeko pikete autoizendatzen diren talde antolatuek egiten duten jarduerak

oldarkorraren igoerari aurre egitea». Eufemismo horren azpian, baina, xede bat lortu nahi zen: beldurra sartzea erakunde sindikalei —garai haietan oraindik ere klandestinoak ziren, gogoratu 1977koa dela Sindikatueta Elkartzeko Legea—, bai eta horiekin aktiboki konprometitutako langileei, eta bereziki erreibindikatioak direnei greba-piketeak antolatu eta garatzen.

Agindu hori, ordea, ez da aldatu egindako lege erreformetan, nahiz eta 1978ko Konstituziotik hainbat aldaketa egon diren arlo juridiko guztietan —baita ere, noski, zuzenbide penal ekonomikoan eta enpresakoan—. Zigor Kodearen 1995eko erreforman ere ("demokraziaren zigor kodea" delakoan) ia-ia bere horretan mantendu da trantsizio politikoko arau hura, greba-pikete koaktiboak inkriminatzea bilatzen duena. Epaile eta epaitegiek ere, artikulua hau aplikatzen dutenean, ez dute koakzio hitzaren esanahi hertsia leundu; hala egin izan balute hitzaren interpretazio murriztailea hartuko zen kontuan, greba-ereduaren aitortza konstituzionalarekin bat etorritik —gure Konstituzioak gauzatzen duen eskubidea—.

Zigor Kodearen 315.3 artikulua barra-barra erabili izan da, grebak antolatu edo luzatzeko jardueretan langileak erreprimitzeko. Eta, batez ere, egun bakarreko greba orokorretan, baina baita beste lan-gatazka batzuetan ere, batez ere aldean arteko jarrerak nolabait gaiztotu direnean.

Kontuan hartzen badugu 315 artikulua 3. atala aplikatuta egon den kondena-kopuru handia eta, aldiz, artikulua beraren 1 eta 2 atalak ia-ia ez direla inoiz aplikatu, horrek argi uzten digu zer-nolako asimetria dagoen arlo horretan gure sistema penalean: "*Langileen aurkako delituak*" babesten dituen Zigor Kodearen atalak ez du benetako eraginkortasunik ez lan-baldintzen urraketa larrienak ekiditeko, ez langileen eskubideak zaintzeko jardura penaletan. Bestalde, azken hilabeteetan ikusi ahal izan dugu zenbat zigor-prozedura hasi diren langileen eta ordezkari sindikalen aurka, greba-eskubidea baliatzeagatik. Ministerio Fiskalak, arau orokor bezala, askatasuna kentzeko zigorrak jartzen dizkie (gehiegizkoak eta neurrigabeak). Horren adibide da duela gutxi Airbus-eko zortzi sindikalisten aurka egin duten epaiketa. Azkenean absolbitu egin dituzte, baina ehunka urteko kartzela-eskaerei aurre egin behar izan diete.

Horiek horrela, Irabazi udal taldeak ondorengo proposamena egiten dio Udaltzari:

Lehen.- Diputatuen Kongresuari eskatzea indargabetu dezala egungo Zigor Kodearen 315 artikulua 3. atala. Helburua da Zuzenbide Penalak ez dezala jarrai greba-eskubidearen erabilera kriminalizatzen eta eskubide horren erabilera mugatzen edo eragozten. Laburbilduz, ekimenak zera proposatzen du: greba sustatzeko koakzioen delitua kentzea, figura penal bezala, bateraezina delako konstituzioarekin eta askatasun sindikalaren nazioarteko bermearekin.

Bigarrena.- Diputatuen Kongresuko talde parlamentario guztiei honen berri ematea.

Udaltzarrak ERABAKI DU, aho batez, transkribatutako mozioa onartzea.

b) EH Bildu eta Irabazi Zarautz taldeen mozioa: Iñurritza eta Talaimendi landa-eremuak eta eremu naturalak zaintzearen alde

Hurrena, EH BILDU eta IRABAZI ZARAUTZ taldeek aurkeztutako proposamena irakurri dute. Hona hemen testua:

IÑURRITZA ETA TALAIMENDI INGURUETAKO LANDA-EREMUAK ETA EREMU NATURALAK ZAINTZEAREN ALDEKO MOZIOA.

Aspalditik ezaguna dugun moduan, Zarautzen dagoen eta zarauztarrok dugun aberastasun handienetako bat gure ingurunea da. Talaimendi, Iñurritza, Asti, Aitze, Urteta, Argoin, Abendaño, Urdaneta, Elkano, Igerain, Mutxio eta hondartza bera dira, besteak beste, aberastasun horren isla nagusiak. Aberastasun horren jabeak eta onuradunak zarauztar guztiok gara eta, aldi berean, aberastasun horrek denboran irautearen arduradun nagusiak ere zarauztarrok gara. Udala, beraz, aberastasun horren erregulatuzaile eta kudeatzailea ere bada.

Ditugun baliabideak eta ingurua bera alferrik xahutu gabe eta ondorengoei behar bezala oinordetzan uztea dira garapen iraunkorraren oinarriak. Garapen iraunkor honek, Agenda 21eko oinarriek adierazten duten moduan, zeharkakoa izan behar du gure jardueraren arlo guztiak kontuan hartuz: energia-kontsumoa, mugikortasuna, hirigintza garapena... Garapen eredu hau beharrezkoa dela adieraztearekin batera, kontrako bidean jarduteak eragin kaltegarriak dituela argi geratu da azken hamarkadetako ibilbidean. Gurean ez ezik, nazioartean ere arazo honen berri hamaika haizetara zabaldu da. Agian, berrietan adierazgarrietakoa, negutegi efektuaren eta klima aldaketaren harira iragan azaroan eta abenduan Parisen egin zen COP21 konferentzia.

Halakoetan gertatzen den moduan, ideia orokorretara mugatzeko joera badugu ere, Udalaren eta udal ordezkarien zeregina herri mailan eragitea da. Hirigintza garapenari dagokionez Zarauzko Udalak badu egitasmo ausart bat: eraztun berde-urdina.

2008an egitasmoaren proposamenak halaxe zioen: “(...) delimitar una serie de espacios (...), preservar las zonas verdes por su propio interés medioambiental y educativo, y crear una zona de esparcimiento. (...) aumentar la superficie arbolada e incrementar las zonas actualmente protegidas del PGOUZ. (...) Cualquier proyecto que promueva el mantenimiento de suelo virgen y de zonas verdes está contribuyendo a mitigar el efecto de cambio climático”. Gerora, eraztun berde-urdina osatzeko oinarriek halaxe zioten: “(...) poner en valor los espacios limítrofes entre el entorno urbano y natural-rural (...), conservar y restaurar los enclaves naturales periurbanos creando un continuo de interés naturalístico como mejora del paisaje urbano actual.” Amaitzeko, 2011ean aurkeztutako memorian, egitasmoaren helburuetako bat honela definitzen zen: “Biodibertsitatea eta herri inguruko berdeguneen zaintza”. Memoria honela amaitzen zen: “Proiektuan herria inguratzen duten gunen naturalen (babes figurarik ez dutenak gehienbat) egoera hobetzeko ekintzak agertzen dira”.

Gauzak horrela, 2012an bai Iñurritza baita Garate - Santa Barbara ere kontserbazio bereziko eremu (KBE) izendatu zituen Eusko Jaurlaritzak. Baita aurretik baita ondoren ere, bada eremu horietan hiritartze-lanak egin nahi izan dituenik. Momentuz, Zarauzko Udalak guztiak ukatu ditu eraztun berde-urdinean zeuden irizpideei eta ezarritako arauari jarraiki. Hala ere, azkenaldian bada kontrarik

egiteko asmoa erakutsi duenik eta, are gehiago, egiten ari denik. Zarauzko udalerrian bertan, aurretik ezetz esan zitzaion sustatzaile batek Plan Berezia aurkeztu zuen ekainean berriz ere. Plan Berezi honen asmoa Talaimendi auzoko lurzoru urbanizaezinean *surfcamp* bat egiteko egitasmoa arautu eta garatzea litzateke.

Honen aurrean, bada argitu eta azaleratu behar denik.

Batetik, Arartekoak Talaimendi inguruan eraikitzen ari den Amezti eraikinari buruz orain gutxi emandako 2016IR-946-15 ebazpena dago, zeinaren ondorioetan, besteak beste, *“halako lurrak hiritartze edota eraikitze lanen bidez eraldatzea desegokiak direla”* aipatzen den. Eraikinaren lizentzia egokia den ala ez epaitu gabe, hori epaitegiak esango baitu, halako lurretan eraikitzeari buruzko kontrako ebazpen argia da aipatutakoa.

Bestetik, ezarri nahi den gunea nekazaritzako intereseko areetako lurzoru urbanizaezina denez, Plan Orokorrean ere badira hainbat puntu kontuan hartzea beharrekoak direnak:

- Ordenantzetako 1.1.03. artikuluan, irizpide orientatzaileak aipatzen dituenean, *“ingurumen-iraunkortasunekoak, lurzoruaren berezko baliabide naturalak babestekoak, lurzoruaren okupazio iraunkorrekoak – hauen birgaitzeari eta berrerabiltzeari lehentasuna emanez-, (...)”* aipatzen da.

- 2.2.03. artikuluan, Iñurritzako eremua bereziki babestea azpimarratzearekin batera, kostaldeko ertzak Estatuko kostaldeein buruzko legearen arabera arautuko direla zehazten da, zeinak *“elementu naturalen eta ingurunearen babesa zaintza eta hobekuntza sustatu”* behar direla agintzen duen.

- Lurzoru urbanizaezina dela kontuan hartuz, beste bi artikulua ere gogora ekartzea komeni da. Batetik, 9.1.02 artikuluan, halako lurzoruan, *“oro har, nekazaritza, abeltzaintza eta baso arloko ustiapena egin”* beharko dela ezartzen da, landa-ingurunean kokatu behar diren herri-onurako ekipamenduei ere atea irekiz Aldundiaren halaberrezko deklarazioa dutenean, beti ere. 9.2.05. artikuluan ere, azken aipamen hau zehazten da, halako ekipamenduak *“izaeragatik eta ezaugarriengatik nahitaez landa-ingurunean kokatu behar diren eraikuntzak eta instalazioak”* izango direla azpimarratuz.

- Amaitzeko, 4.2.02. artikuluan ageri den moduan, halako ekipamendua ezinbestean lurzoru urbanizaezinean (nekazaritzarako intereseko arean, zehazki) eraiki behar izatea eta horrek duen interes orokorrak berebiziko garrantzia du Plan Berezia onartu ala ez erabakitzerakoan.

Udalari dagozkion erabakiekin jarraituz, bada aipagarria den beste puntu bat ere. 2006ko abenduaren 20an Eusko Jaurlaritzak hasierako onespina eman zion Iñurritzako Biotopoko planari. Jendaurreko epean, partzela eremu urbanoaren eta Biotopoen artean geratzen zela eta izango zuen presio urbanistikoa handiaz babesteko arrazoiarekin, Zarauzko Udalak orain Plan Berezia garatu nahi den partzela babesteko eskatu zion Eusko Jaurlaritzari. 2008ko uztailaren 17an Eusko Jaurlaritzak Udalaren alegazioa onartu zuen eta berriz ere jendaurrean jarri zuen Biotopoko plana, aipatutako partzela babes eremuan jarritz.

Udalak onartutako araudiarekin batera, Udalaz gaindiko administrazioek ere onartutako legeak aipatzea interesgarria da.

Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Arloko Planak (LAP) eta 17/2008 Legeak, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoak, balio estrategiko altuko gunetzat dute Plan Berezia garatu nahi den partzela. LAParen 48. artikuluan balio estrategiko handiko kategoria duten gunek *“mantentzea eta gordetzea lehentasuna”* dutela azpimarratzen da eta, 49. artikuluan, *“arreta berezia jarri behar dela halako lurzorua okupatzeko prozesuak kontrolatzean”* zehazten da. 17/2008 Legeak ere, bide beretik, balio estrategiko handiko lur hauek *“estrategikoak direla Eusko Autonomi Erkidegoan eta interes sozialekotzat joko direla horrenbestez”* arautzen du.

Itsasertza Babestu eta Antolatzeako Lurraldeko Arloko Planak ere partzela Nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko antolamendu kategorian sartu zuen. Itsasertzeko LAParen 22. artikuluan irizpide orokor moduan, ekosistemak eta nekazaritzako paisaiak zaintzea ziurtatuko duten jardueren gaitasun agrologikoa mantentzea hartzen dute. Halaber, 17.E3. artikuluan hainbat ekipamendu ere onargarrizat jotzen dituzte: *“Landa-inguruneari lotutako ekipamenduak, badin eta nahitaez landa-ingurunean kokatuta egon behar badira”* edota *“itsasoko eta lehorreko jabari publikoari lotutako ekipamenduak (salbamendu instalazioak, dutxak, komunak eta antzeakoak)”*.

Amaitzeko, paisaia izango duen eragina ere aipagarria da. Talaimendi auzoan, gune maldatsu eta irekian, erdisotoa, beheko solairua eta goiko solairua izango dituen 4551 m²ko ekipamenduak eraztun berde-urdinean zuzenean eragingo du, inguruko paisaia desitxuratzearekin batera. Azpimarratzekoa da, azkenik, ekipamendu hau atzeraezinekora dela, alegia, behin eraikita ezin izango dela leheneratu jatorrizko egoerara.

Guzti hau kontuan hartuta, Udalbatzarrak honakoa erabakiko du:

1. Zarauzko eraztun berde-urdina indartzeko pausoak emango dira, egitasmoa garatuko duten departamentu eta zerbitzuak beharrezko baliabidez hornituz. Kontzientziazioan eta dugun aberastasuna azaltzen ahalegin berezia egingo da.
2. Eraztun berde-urdinaren egitasmoa osatzea oztopa dezaketen hirigintza garapenak ekiditeko ahalegin berezia egingo da eta Udala, hori hala izateko, agente aktibo izango da. Udalbatzar honek Udaleko gainontzeko organo eskudunei ere eskaera bera luzatzen die.
3. Plangintzan egin beharreko aldaketa oro (Plan Orokor, Partzial edota Bereziak) egin aurretik, Zarauzko Udal Plangintzako Aholku Batzordean eztabaidatuko dira.
4. Udalak lurraldea antolatzen duten Udalaz gaineko tresnak bete eta betearaziko hartuko ditu, bai arauak eta baita irizpideak ere.
5. Erabaki honen berri Udal departamentu eta zerbitzu guztiei jakinaraziko zaie.

Mozioa eztabaidatu ostean, eta bozketa bakoitzean jasotako emaitzaz, mozioaren 1., 2., 4. eta 5. puntuak onartzea eta 3. puntua atzera botatzea ERABAKI DU Udalbatzarrak.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, osoko bilkurari amaiera eman diote, gaueko bederatzietan, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.